



2. LERROA: Erkidegoaren obrak

Zer obra finantzatzen dira?

- **Kontserbazio-, segurtasun- eta bizigarritasun-obrak:** egitura egokitzea, fatxadak birgaitzea, kanpoko bizigarritasuna (terrazak eta balkoiak instalatzea, balkoiak zabaltzea eta luzatzea), estalkiak ordezkatzeko, isolamendu akustikoa, suteetatik babesteko segurtasuna eta ataria eta eskailerak konpontzea.
- **Energia-efizientzia hobetzeko obrak:** berotze- eta hozte-sistemak, aireztapena, energia elektrikoaren autokontsumoa, etxeko ur beroa, argiteria, inguratzaile termikoa, barruko airearen kalitatea, isolamendu termikoa, kanpoko arotzeria aldatzea, eraikin osoko terrazak eta balkoiak ixtea.
- **Hobekuntzak irisgarritasunean:** igogailuak berritu edo berriak instalatzea, antolamendua moldatzea arkitektura-oztopoak ezabatzeko edo desgaitasun sentsorialak dituztenentzako egokitzeko, bide publikoetako sarbideak berritzea, ekipamenduak eta tresnak eta horien seinaleak berritzea.

Zer gastu ordaintze dira?

- Profesionalen soldatak.
- Birgaitze-jarduerak kudeatzeaz arduratzen diren finken edo profesionalen administrazioaren zerbitzu-sarien kostuak
- Kontrata bidezko gauzatze-aurrekontua.
- Eskubideak, tasak eta birgaitzeagatik ordaindutako prezio publikoak..
- BEZaren kostua, jasandakoa denean eta ezin denean jasanarazi.

Ez dira jarduketa babesgarriak:

- Eraikinak hustea, fatxadak banatu edo eraistea edo barruko trenkadak berrantolatzea, baldin eta horren ondorioz etxebizitza-kopurua handitzen bada edo aurreko etxebizitza-erabilera aldatzen bada, eta jarduketan helburua ez bada BPEak egitea.
- Eraikinaren elementu apaingarri eta edergarriak.

Zer betekizun dira beharrezkoak?

- Lerro honetan, laguntza orokorrak eta laguntza partikularrak sartzen dira



LAGUNTZA OROKORRAK: birgaituko den eraikinaren (erabilera nagusizat etxebizitzarena duena) jabe bakarrentzat, zeina izan baitaiteke pertsona fisikoa edo juridikoa, pribatu zein publikoa, ondasun-erkidego bat, etab.

LAGUNTZA INDIVIDUALAK: familia bakarreko etxebizitzaren edo birgaituko den eraikinaren elementu pribatiboaren jabe, errentari edo gozamedunarentzat edo horiek erabiltzeko eta aprobetxatzeko legitimatzen duten eskubide errealean edo bestelakoen titularra denarentzat, baldin eta bere ohiko etxebizitza edo etxebizitza iraunkorra bada. Parte hartu beharko dute, hala badagokie behintzat, erkidegoaren obrak ordaintzeko dagokien kuotaren bidez.

Erkidegoak, erkidego-elkarteak eta etxebizitza-kooperatibak Jabetza Horizontalaren Legeak xedatutakoaren arabera ordezkaturata egon beharko dira.

Eraikinak etxebizitza-erabilera izan behar du nagusiki (azalera osoaren % 70, gutxienez). Gainera, eskaera gauzatu baino lehen eraikinen ikuskapen teknikoa gaindituta izan beharko du.

Eraikinak, gutxienez, 20 urte izan beharko ditu, salbu eta bere segurtasunari eta egonkortasunari eragiten dioten kalterik badu, edo eskaerak arkitektura-oztopoak kentzeko badira, baldin eta etxebizitzetako bat, gutxienez, 65 urtetik gorako pertsona baten ohiko bizileku iraunkorra bada edo mugikortasun urria edo disfunzio sensoriala duen pertsona batena.

Obrak egiteko udal-lizentzia behar da.

Laguntza indibidualei dagokienez, bizikidetzaren unitateak honako diru-sarrerara haztatuak izan beharko ditu: 39.000 € gehienez, mailegu kualifikatuetarako, 25.000 € gehienez, dirulaguntzetarako eta interes-tasen subsidiaziorako. [Diru-sarreraren simulazioa](#).

Gutxieneko aurrekontu babesgarria 3.000 eurotik gorakoa izan behar du etxebizitza edo lokal bakoitzeko (irigarritasun-obrak salbu; horiek ez dute gutxieneko mugarik).

Finantzaketan sartuko dira eraikineko etxebizitzekin eta lokalekin lotutako garaje eta trastelekuak.

Jarduketak 18 hilabeteko epean bukatu beharko dira, dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazten den egunetik.

Zer laguntza eskuratzeko eskubidea dut?

- **Itzuli beharrik gabeko dirulaguntza:** itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak eskainiko zaizkie erkidego, erkidego-elkarte eta etxebizitza-kooperatiba, jabe edo onuradun-izaera duten enpresa, erakunde edo elkarteek; dirulaguntzaren zenbatekoa aginduan ezarritakoaren arabera kalkulatu da.



- Etxebizitzen edo lokalen titularrek, laguntza horretaz gain, laguntza indibidualak ere jaso ahalko dituzte, eta laguntza horiek kalkulatu dira erkidegoaren obren aurrekontu babesgarriaren arabera (laguntza orokorrak kenduta eta parte-hartze kuotari dagokion ehuneko aplikatuta), aginduan ezarritako gehieneko ehunekoak eta zenbatekoak oinarri hartuta.

Diru-sarrera haztatuak	Kide kopurua	1. motako obrak	2. motako obrak	3. motako obrak
9.000 euro arte	3 edo gutxiago	I: % 55 A: % 45	I: % 55 A: % 50	I: % 60 A: % 50
	3 baino gehiago	I: % 60 A: % 50	I: % 60 A: % 55	I: % 65 A: % 55
9.001 eurotik 15.000 eurora	3 edo gutxiago	I: % 50 A: % 40	I: % 55 A: % 45	I: % 55 A: % 45
	3 baino gehiago	I: % 55 A: % 45	I: % 60 A: % 50	I: % 60 A: % 50
15.001 eta 25.000 euro bitartean	3 edo gutxiago	I: % 40 A: % 30	I: % 45 A: % 35	I: % 45 A: % 35
	3 baino gehiago	I: % 45 A: % 35	I: % 50 A: % 40	I: % 50 A: % 40
Gehienez		I: 7.500 euro A: 5.500 euro	I: 9.500 euro A: 7.500 euro	I: 10.000 euro 8.000 euro

2. taula: laguntza gehigarrien ehunekoak eta gehieneko mugak.

Eta nola aurkez dezaket nire eskabidea??

[Esteka honetan](#)